

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapen Departamentuak taxi-zerbitzuak ikuskatzeko kanpaina egingo du irailaren 27tik urriaren 5a bitarte

*Iruzzurrezko jarduerak hautematea da xedea, ibilgailu "piraten" zirkulazioa, esaterako*

Jueves, 25 de septiembre de 2014

Larunbatetik, irailak 27, eta urriaren 5a bitarte, Foru Komunitatean aritzen diren hiriko nahiz hiriarteko taxi-zerbitzuen kontrol zein ikuskapeneko kanpaina egingo da. Neurri hori Sustapen Departamentuak Lurralde, Mugikortasun eta Etxebizitzako Zuzendaritza Nagusiaren bidez urtero onartutako Garraioak Ikuskatzeko Planaren barnean sartzen da. Kanpainak Iruñerriko Mankomunitate, Foruzaingo, Guardia Zibil eta Iruña nahiz Tuterako Udaltzaingoen laguntza du.

Kanpainako helburuen artean, besteak beste, "taxi pirata" moduan ezagunak direnak hauteman eta geldiaraztea da, eta 2012an lehen aldiz egin zen taxi-kontrol kanpainan identifikatu zirenak. Jarduera hori arau-hauste oso larria da eta hala dago tipifikatuta Taxiaren Foru Legean, aurreikusitako legezko bermerik eta segurtasunik ez baitu (tarifa ofizialak aplikatzea, erreklamazio-orriak antolatzea, nahitaezko aseguruak estaltzea...) horrek erabiltzaileei ekar lekiokkeen arriskuarekin. Eta, gainera, lizentzia duten taxilariarentzat lehia desleiala delako.

Estreinakoz, eta uztailaren 2ko 22/2013 Foru Legearen 63. artikulua araberak, uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena, Taxiari buruzkoa, ibilgailu horiek geldiarazi ahalko dira. Arauak sartzen duen beste berrikuntza bat da, "taxi pirata" bateko gidaria ere arau-haustearen arduraduna dela, ibilgailuaren titularra izan ez arren.

Kanpainako beste helburuetako bat 2012ko kanpainan hautemandako arau-hauste sarrienak kontrolatzea da, haien artean, tarifen koadroa erakusgai ez izatea eta tarifa-araubidea ez betetzea. Hori, aldi berean, honako honi lotzen zaio: karrerako datuak jasotzen dituen txartela erabiltzaileari nahitaez eman beharko zaiola. Izan daitezkeen gehiegikerien aurrean herritarra babestea du xede, eta baita taxilariak babestea ere, sektore berean dagoen lehia desleialaren aurrean.

Era berean, taximetroaren instalazioa egiaztatu nahi da, nahitaezkoa dena Taxiaren Legea 2013an aldatu ondoren, lizentziaren titularra atxikita dagoen udalak berriaz salbuetsi ez badu behintzat.

Taxilarien taldeak 448 lizentzia ditu Nafarroan, eta haietatik 313k Iruñerriko Mankomunitatearen zerbitzuko baterako prestazio-eremuan lan egiten dute.